

# ETXEBIZITZA COVID-19AREN GARAIAN



**LARRUN** #256

# KONFINAMENDUAK ERAKUTSI DIZKIGUN ETXEKO ERTZAK

EGILEA | **GORKA BEREZIARTUA MITXELENA**

AZALA | **JOSEBA LARRATXE JOSEVISKY**

ARGAZKIAK | **DANI BLANCO**

PLANOAK | **COVID STUDY HOUSES**

**A**urten gutako askok egin dugun bi-daiarik interesgarrienak ez gaitu atzerriko lurralde ezezagunen batera eraman, ezta Euskal Herrian bisitatu gabe geneukan parajeren batera ere: gure etxearen muinera joan gara 2020ko martxotik aurrera, COVID-19ari aurre egiteko ezarritako neurrien eraginez. Ia denbora guztia gure bizilekuetatik atera gabe egon ondoren, zerbait

aldatu ote da gure buruari aurkitu ahal izan dion teilatupeaz daukagun ikuspegian? Galdera horren erantzunaren bila, *Covid Study Houses* proiektua martxan jarri duten bi arkitektoengana jo dugu: Jonander Agirre Mikelez eta Ekain Olaizola Lizarralde eman dizkiguten azalpenei esker, zerbait gehiago jakin dezakegu herritar gehienontzat oharkabea, modu oso jakinean egituratzen diren gure etxebizitzetarako.

---

**LARRUN HILABETEKARI MONOGRAFIKOA** · ARGIAren 2.705 zenbakiarekin banatua.

**JABEA:** KOMUNIKAZIO BIZIAGOA S.A.L. **HELBIDEA:** ZIRKUITU IBILBIDEA, 15. PABILOIA 20160 LASARTE-ORIA **TELEFONOA:** (00 34) 943 37 15 45

**POSTA ELEKTRONIKOA:** LARRUN@ARGIA.EUS **INPRIMATEGIA:** ANTZA KOMUNIKAZIO GRAFIKOA **DISEINUA:** MAITANE GARTZIANDIA

2020ko urriaren 25a

---

## ONGI ETORRI DAUKAZUN LEKU HONETARA (EDOZEIN DELA ERE)

Imajina dezagun munduak *reset* botoiari sakatzea erabaki duen momenturen bat. Demagun, 1945. urtea. II. Mundu Gerra bukatu da, Europa erdia suntsituta dago. Atlantikoaren beste aldean ordea, oso bestela daude gauzak: AEBak, orain bai, inolako zalantzarik gabe, munduko lehen potentzia bilakatu dira eta hurrengo urteetan planeta dominatuko duen ekonomiak poro guztietatik isurtzen du nagusitasuna. Baita etxebizitzaren sektorean ere, ez baita alferrik *boom* bat gertatuko gerra osteko urteetan. Baikortasuna dario *Arts & Architecture* aldizkariak martxan jarri berri duen *Case Study Houses* proiektuari: XX. Mendearen erdialdeko arkitekto handienak elkartu ditu etxebizitza-eredu eraginkorrek diseinatzeko. Metala eta kristala nagusi diren modeloak pro-

posatuko dituzte 1945etik 1966ra bitartean luzatuko den egitasmoan. “Ideia zen etxe horietako bat eros-

ederrenak aukeratu eta hor jarritz, etxe idealaren irudia ematen zuen”, azaldu du Ekain Olaizola Lizarralde arkitektoak. “Emakume bat han behean dagoen Los Angeles hiriarri begira, dena idilikoa”, gaineratu du. “Industria militarra etxegintzara bideratzeko modua izan zen. Metalarekin eta kristalarekin egindako etxeak ziren, logika estatubatuar tradizionala hausten zutenak eta estatus oso altuko pertsonentzat pentsatuak”, gaineratu du Jonander Agirre Mikelezek, Olaizolarekin batera *Covid Study Houses* proiektua abian jarri duen arkitektoak.

Donostiako Mundaiz bidean dagoen Azpi Kultur Elkartearen elkar-tu gara aurtengo konfinamenduan martxan jarri zuten ekimenaz hitz egiteko eta, beste ezer baino lehen, izenburuaren atzean dagoen ironia esplikatzen zutenaren

### KONFINAMENDUAN JENDEARI BIZI DIREN ETXEEN PLANO EZ-TEKNIKOAK MARRAZTEKO ESKATUZ JARRI ZEN MARTXAN COVID STUDY HOUSES PROIEKTUA

tea eta nahi zenuen lekuan jartzea. Bezeroak eskura zeuzkan AEBetako lursailik ederrenak; prototipo

Ekain Olaizola Lizarralde eta Jonander Agirre Mikelez arkitektoek bultzatu dute *Covid Study Houses* proiektua.






justu kontrakoaz hitz egin nahi dutela: martxotik aurrera bizitzea egokitu zaiguna kontuan hartuta, gehienontzat ez baita egon aldizkarietan erakusteko moduko arkitekturarik, ezta nolako etxean bizi nahi dugun aukeratzetik ere, are gutxiago etxe hori non kokatu nahi dugun erabakitzerik. Zer esanik ez, etorkizuna garai itxaropentsu gisa aurreikusteko oinarriak tokitan geratu dira. Konfinamendua etorri zen momentuan etorri zen, eta une horretan bakoitzak zegoen lekuan geratu behar izan zuen. “Ez da zure ametssetako etxea, tokatu zaizuna baizik”, dio Olaizolak.

Baina nolakoa da tokatu zaigun hori? Galdera horri erantzuteko aukera eman du *Covid Study Houses*-ek, ariketa simple bezain mamitsua proposatuz: norberak bere etxeko planoak marraztea. “Hasieran denoi gertatu zitzaigun: bat-bateko egoera aldaketa ikaragarria izan zen, oso egoera indefinituan sartu ginen; eta egoera horretan hasten zara pentsatzen zer egin dezakezun. Kanalizazioetako bat izan zen galdetzea: ‘Nola egongo ote dira ni baino okerrago daudenak edo hobeto daudenak?’”, esplikatu du Olaizolak. Inguruan arkitekto asko ditu eta haiekin hasi zen sare sozialen bitartez bere etxeko planoak partekatzen, lagunei “Ni hemen nago, zu non zaude?” galdetuz. Inguruko aldetik bueltan jaso zituen planoetan ez zituen bakarrik etxearen ezaugarriak ikusten. “Bakoitzak nola marrazten duen eta zeri garrantzia ematen dion ere ikusten duzu. Horrela jasotako lehenengo hiru edo lauen artean Jonanderren planoak zegoen, eta hasi ginen elkarrekin komentatzen historia hau; eta ikusten genuen arkitektoak ez ziren pertsoneri ere interesatzen zitzaiela”. Proiektua gorputza hartzen hasi zen.

Geroztik Euskal Herrian eta atzerrian bizi den jende askok egindako planoak jaso dituzte. *Covid Study*

*Houses*-en Instagram kontuak horietatik 192 argitaratu ditu, gehiago jaso dituzten arren. Agirrek azaldu duenez, marrazkietako batzuk alde batera utzi dituzte, hain zuzen arkitektura ikasleek egindakoak zirelako, unibertsitateko irakasleren batek eskatuta. Marrazki horiek etxearen plano teknikoak ziren, eta proiektu honek berriz etxebizitzari ikuspegi subjektiboagotik begiratu nahi dio. “Konfinamenduan etxean denbora pila pasatzen genuenez, jendea hasi zen kontzientzia hartzen non bizi zen eta zer nolako mugak eta zailtasunak zituen bere etxebizitzak, gehien bat horrelako egoera batean bizitzeko. Jendea konturatu zen akaso bere etxea txikia zela lau pertsona bizitzeko; edo balkoiaren kontua, gai oso handia bihurtu dena martxotik aurrerako hilabeteetan; edo nola sartu norberaren esfera publikoko hainbat eta hainbat gauza ordura arte pribatua zen espazioan; eta espazio oso murriztean gainera”, azaldu du.

Zelda batean egotearekin konparatu du Olaizolak konfinamendua, parean ispilu bat daukazula, “zu hau zara” esanez. “Ez daukat beste erremediorik nire buruari begiratzea baino eta ez naiz konturatu orain arte nire etxearen ezaugarriak zein diren, ez ditut inoiz aztertu”, azaldu du. Hausnarketa horri laguntzeko ariketa gisa deskribatu du proiektua, izan ere, uste du norberak bere burua marrazten duenean desberdin ikusten duela, kanpotik beazala; eta gauza bera gertatzen dela norberaren etxea marraztean ere. Kontzientzia hartze horri dimentsio politikoa gaineratu dio Agirrek: “Espainiako Estatuan eduki dugu konfinamendu gogorrenetako bat, eta aldi berean daukagu etxebizitzaren logika bat, baita Hego Euskal Herrian ere, oso pieza txikietan bizitzea bultzatu duena, balkoi oso txikiekin, jardirik gabe... Etxebizitza minimoaren logika”.





## ETXEAN BIZI GINEN?

Mona Cholet *Le Monde Diplomatique*-ko kazetariak 2016an argitaratu zuen *Chez soi* (Etxean) liburua, XXI. mendearen hasiera honetako etxebizitzari buruzko hainbat aspektu aztertuz. Liburuko une batean, jardunaldi osoko lanpostuak dituzten bi pertsonak partekatzen duten pisuaren desordenaz hitz egiten ari dela, honakoa galdetzen du: “Bizi gara benetan gure etxeetan?”. Pasa dugun guztiaren ondoren, 2020tik erantzun diezaiokegu galdera horri: ez. Askok aurten ikasi dugu etxean bizitzea benetan zer den, aurretik lotarako eta beste aktibitate minimo batzuetarako erabili izan dugun espazioa inoiz ez bezala ezagutzeko modua izan delako konfinamendua. Agirreren ustez, balio izan du baloratzeko etxebizitzak gure bizitzetan zer nolako pisua daukan. “Zenbat sinbolo eta gauza politiko dauden sartuta hor. Marrazki askotan horiek ere ater dira”.

Etxea izan daiteke abiapuntu on bat gizartea ulertzeko. Christopher Alexander arkitektoak zioenez, pertsona batek bere sentitzen duen eremu bat ez baldin badauka, bizimodu kolektiboan ekarpenen bat egingo duela espero izatea “itotzen ari den pertsona bati beste bat salba dezala eskatzea bezala da”. Bizitokiak egonkortasuna ematen du, unibertso propio bat sortzeko aukera. “Bigarren jantzi” gisa deskribatzen du Choletek: babesten du, disimulatzen du, gorputza ongi dagoela ziurtatzen du eta azalera sozial minimo bat eskaintzen dio bertan bizi denari, adierazteko modu eta leku izateaz gain. Memoria edukitzeko aukera ere bada:

bizi garen lekuei esanahiak emateko joera dugu, etxe bat ez dira horrek, leihoak eta altzariak bakarrik, norberaren biografiako une garrantzitsuenak ere nonbait gertatu dira eta, ez gutxitan, norberaren etxea izaten da leku hori. Gainera, bizi garen lekuetan gure aurrekoek gordetzen diren arrastoek genealogia pertsonalerako ateak ere zabalitzen dizkigute.

Gure luzapentzat jotzen dugun espazio hori da etxea. Baina leku horren jabe egiteko posibilitatea geroz eta mehatxatuago dago bizi garen mendean. Jonathan Craryk *24/7: Late Capitalism and the End of Sleep* (24/7: Kapitalismo berantiarra eta loaren amaiera) liburuan azaltzen zuen moduan, “XXI. Mendeko kapitalismoak bilatzen du giza bizitza osoa pausarik gabeko iraupen batean sartzea, etengabeko funtzionaltasunaren printzipioak definituta”. Ez baita lanean pasatzen dugun denbora bakarrik etxeko bizimodua eragozten diguna: lantokitik irten, etxera iritsi eta gure gelan sartzean ere, egoteko modua asko aldatu zaigu Interneteko sarbidea orokortu denetik. Norberaren bizitokiak lehen eman zezakeen mundutik babestuta egoteko lekuaren sentsazioa; orain berriz, bakoitzaren gela ere interbentzio publikoak egiteko eszenatokia izan daiteke<sup>1</sup>. Testuinguru horretan, konfinamendua esperimendu gisa erabili da etxebizitza partikularrak eremu produktibo bihurtzeko: orain arte, batzuek egiten zuten lan etxetik eta, hala egiten ez zutenek, aplikazio digitalen erabilerarekin denbora ez-produktiboan datuak ekoizten eta multinazional teknologikoentzat “lan” egiten zu-

<sup>1</sup> 242. LARRUNen hitz egin genuen aldaketa horretaz eta bitartekaritza teknologikoak ezaugarritutako kapitalismoak pertsonen bizitzak azken muturreraino etekinaren logikarantz lerratzeak daukan joeraz.

ten. Aurtengo martxotik aurrera, soldatapeko lanaren ekoizpen “gogorra”-ren zati esanguratsu bat ere etxetik egin daitekeela ikusi da.

Horrek bizi garen etheen diseinuan nolako eragina izango duen ikusteko dago. “Gure etxeak ez dira gehiago espazio pertsonalak bakarrik izango, abiadura handiko konektibitate digitalaren bidez gure eskolak, mediku kontsultak, gimnasioak eta, estatuak hala erabakiz gero, gure kartzelak ere izango dira”, azaldu zuen aurtengo maiatzean Naomi Kleinek *The Intercept* aldizkari digitalean, zeresana eman zuen artikulu batean. “Noski, pandemia aurretik ere gutako askorentzat etxe horiek berak jada bihurtzen ari ziren inoiz itzaltzen ez diren lantoki, baita entretenimendurako leku nagusiak ere (...). Baina lasterka eraikitzen ari diren etorkizunean, joera horiek guztiak prest daude *warp* abiaduran –argindarra baino azkarrago mugitzeko modu teorikoa– azeleratzeko”.

### PISU BERDINA NONAHI

Orain arte kanpoan egiten ziren jarduerak etorkizunean etxeko sukalderraino sartuko ote zaizkigun ikusiko dugu, baita horrek etheen morfologia aldatuko ote duen ere; baina bitartean, ezagutzen ditugun

etxeetara itzuliko gara. Izan ere, *Covid Study Houses* proiektuan erakutsi dituzten planoei erreparatuz, deigarria da nola oso modu diferentean marraztuta egon arren, etxeetako askok, funtsean, osagai eta banaketa berdin-berdinak dauzkaten.



**KONFINAMENDUAN  
ETXEAN DENBORA PILA  
PASATZEN GENUENEZ,  
JENDEA HASI ZEN  
KONTZIENTZIA HARTZEN  
NON BIZI ZEN ETA ZER  
NOLAKO MUGAK ETA  
ZAILTASUNAK ZITUEN BERE  
ETXEBIZITZAK”**

**JONANDER AGIRRE MIKELEZ**

Jonander Agirrek baieztatu du inpresio hori: “Egia da dena berdina dela: pisu tipikoak, logika patriarkal batekin: logela nagusia, egongela, sukalde txikia eta bi gela, neskarentzat eta mutilarentzat”. Leku askotan errepikatzen den pisu mota da

arkitekto donostiarraren arabera eta gaur egun egiten diren promozioak ere molde horretatik atereak dirudite. Zergatik jarraitzen du eredu horrek indarrean?

Olaizolak uste du promozio urbanistikoak egiten dituztenek “arazo gutxien emango dizkien ereduaren alde egiten dutela” eta aipatutakoa dela “kexa gutxien sortuko dituen etxe-tipologia”. Urriaren 8tik Donostiako Arteko galerian ikusgai daude *Covid Study Houses* proiektuko zenbait plano eta elkarrizketa egiten ari garen bitartean, erakusketa hori prestatzeko inprimatu dituzten irudiak daude mahai gainean. Horietako bi seinatu ditu: marrazkiei begiratu, elkarrekin zerikusirik ez dutela dirudi lehen kolpean. “Baina begiratu hasten zarenean, plana berdin-berdina da. Eta ez dirudi etxe bera, nahiz eta ezaugarri berdinak izan. Hor konaturatzen zara zure osaba bat Eibarren eta zure izeba bat Hondarribian etxe berdinean bizi direla. Eta kurioa da, zeren tipologia hori, hain markatua –espazioak erabilera konkretuekin eta tamaina konkretuekin–, jendeak erosten duenean jabe guztiak gauza bera egiten dute: sukaldeko tabikea bota eta dena elkartu. Zergatik ez dute hasieratik eraikitzen gero mundu guztiak eskatzen duen era horretan?”


Etxea erosi nahi duenak “eskatzen” duenaz eta promotoreen ikuspegiak gain, beste aldagai bat azpimarratu du Agirrek: administrazioa. Izan ere, erakunde publikoek arautzen dute zer baldintza bete behar diren etxebizitzak eraikitzean. Eta hain justu une honetan, Hego Euskal Herriko bi administrazio autonomikoetan martxan daude etheen bizigarritasun baldintzak eta diseinu arauak zehazten dituzten legeak berritzeko prozesuak. Konfinamenduak bete-betean harrapatu du lege-aldaketa fase hori eta, beraz, etxealdiak eragin dituen zenbait eztabaidak





eragina izan dezakete lege berrietan. “Jende askok eskatzen zuen, eta nik ere bai, balkoieta kontuan hartzea. Araudiek espazio minimoak ezartzen dituzte eta guk eskatzen genuena zen kanpo-espazio minimo bat ere sartu behar dela. Zeren bestela, adibidez Loiolako Erriberetara joaten bazara, ikusten duzu zein etxe diren promozio librekoak, zeintzuk diren babes ofizialekoak eta zeintzuk tasatuak. Tasatuek badaukate balkoi txiki bat, babes ofizialekoek ez dute; eta promozio librekoek aldiz, kristoren balkoiak dituzte. Iraingarria da hori”.

Etxeen barruan nolako kolektiboak biziko diren ere aurretik pentsatzen du legeak, horregatik ezartzen du logela nagusiaren beharra, bikote eredu tradizionala bakarrik kontuan hartuz. “Araudiaren planteamendua da egongelak hamalau metro koadro izan behar dituela gutxienez, sukaldeak zazpi-zortzi, logela nagusiak hamar eta gero beste logelek sei-zortzi. Pandemia baino lehenagotik ere, hori aldatzeko planteamenduetako bat da gela neutroak sartzea”, esplikatu du Agirrek. Bere ustez, familiarik harago bestelako bizikidetzak-unitateak existitzen direla onartzen den momentutik, gelek tamaina bera edukitzea logikoagoa izango litzateke orain arteko hierarkizazioari eustea baino. “Eta ez dute zertan izan lo egiteko bakarrik, erabilera hibrido bat ere har dezakete. Ikuspegi horretatik, egongela ere ez litzateke egongela izango, sukaldeak ez luke zertan egongela baino txikiagoa izan... Akaso sukaldea ere biltzeko lekua bihurtuko litzateke. Planteamendu nahiko esperimentalak dira, irakurketa feminista batetik datoz eta norabide horiek markatzen dituzte. Orain ari dira planteamendu horietatik asko eraikitzen Katalunian, baina hemen oraingo ezinezkoa da, araudiak ez duelako onartzen”.



### AGORTUTAKO EREDUA


Konfinamendua bizi izan dugun lekuak eraikitzeko irizpideen zurruntasun horren jatorria non dagoen bilatzen hasi gara. Ezetz asmatu zein koloretako alkandorak zituzten oraindik indarrean dagoen ikuspegia bultzatu zutenek?

José Luis Arrese (Bilbo, 1905 - Corella, 1986) izena entzun, eta askok ez dute pertsonaia kokatuko. Historiaren isurbideak bere lana egin duela dirudi, baina arkitekto eta politikari faxista honek -hitza ez da debaldekoa, Falangeko kide eta Francoren ministro izan zen-, oraindik irauli ez den etxebizitza-ereduaren zimenduak jarri zituen Espainiako Estatuan eta, beraz, baita Hego Euskal Herrian ere. Gaztelaniaz, eta itzultzeko zaila den hitz-joko bat eginez formulatutako esaldi batean laburbil daiteke 1957tik 1960ra Espainiako Etxebizitza ministro izandakoaren hirigintza-plana: “*Queremos un país de propietarios y no de proletarios*” (“Jabeen herrialdea nahi dugu eta ez proletarioena”).

Arreseren eskutik, 180 graduko aldaketa egin zuen Francoren


erregimenak etxebizitzari zegokioenez: ordura arte estatuak eraikitako kostu baxuko etxeen alokairuan oinarritzen ziren politiken ordeztuak, etxebizitzak jabetzan erostea bultzatu zuen, baita handik aurrera egingo ziren promozio berriak sektore pribatuaren esku uztea ere, eraikuntzari esker gutxi batzuen negozioa erraztuz. Etxebizitza Ministerioa bere gain hartu eta gutxira, Arresek ideia berri horien lehen aplikazio masiboa iragarri zuen, Madril kanpoaldeko txabola-auzoen arazoari aurre egiteko Larrialdi Sozialeko Plan batekin. Egitasmoak arrakasta izan zuenez, Katalunia eta Euskal Herriko hirigune nagusietara ere esportatu zuen, Bartzelona eta Bilboko periferietan eskua sartuz. Francoren erregimena fase desarrollistan sartuko zen handik gutxira eta garai hark arrasto sakona utzi du gaur egun arteko hirigintzan.

“Hemen hazkunde oso potentia egon da azkeneko hamarkadetan, joan den mendearen erdialdetik hona; eta modeloa bihurtu da eta optimizatu da hainbeste, ezin dela gainditu”, azaldu du Olaiolak.



“Ideia bat egin dezazun: nire sozioetako batek badaramatza 35 urte etxebizitzak eraikitzen eta ikusten duenean lur sail bat eta programa bat, ateratzen du kalkulagailua, eta esaten dizu zenbat etxebizitza aterako diren nukleo bakoitzeko, zenbat plaza, zenbat leiho eta zuk egingo duzula lo burua harantz begira”, azaldu du erdi barrez.

Baina eredu hori “agortuta” dagoela uste du: “Ez da galtzen ezta zentimetro karratu bat ere eta ez dago problema bat bera ere, ez dagoelako espazio komunik. Jendeak ezin du elkarrekin interakziorik izan, bakarrik entzun dezakeelako aurrekoaren atea ixten etxera sar-

  
**ETXEEN BARRUAN  
 NOLAKO KOLEKTIBOAK  
 BIZIKO DIREN AURRETIK  
 PENTSATZEN DU LEGEAK,  
 HORREGATIK EZARTZEN  
 DU LOGELA NAGUSIAREN  
 BEHARRA, BIKOTE  
 EREDU TRADIZIONALA  
 BAKARRIK  
 KONTUAN HARTUZ**

tzen denean. Zu ere, etxetik irteten zara, igogailuan sartu, zure kotxea hartu eta bazoaz lanera. Behetik hasita, egitura egina dago kotxeak sar daitezen eta zu baldintzatzen zaituzte beste guztira. Hori ez du inork zalantzan jartzen. Eta zuk proposatzen baduzu soto bat izan beharrean beheko solairu guztia erabilera amankomunekoia izatea, jendearen esku utziz espazioa banatzeko erabakia... hori kristoren gatazka da. Promotoreek hori ez dute nahi ezertarako. Baina ereduak harago begiratu behar du, aurre egin behar zaio horri”.

Iritzi berekoa da Agirre, baina arduraren parte bat etxeetan bizi








garenona ere badela iruditzen zaio. “Erraza da bezeroak sukalde eta egongelaren arteko horma botatzea, baina piezen arteko harreman desberdinak egitea ez hainbeste. Horretan ezin zara sartu. Eta pena da, zeren joaten zara beste leku batzuetara, etxebizitza desarrollismoak eta Frankismoak hemen markatu duena bezainbeste markatu gabe dagoen lekuetara, eta etxea erabiltzeko modua oso desberdina da”.

### ESPAZIO KOMUNA, ESPEZIE DESAGERTUA

Konfinamenduan etxe askotan geratutako zerbait ekarri du gogora Olaizolak. Umeak etxetik atera gabe egon beharrak sortutako egoera itogarriaren aurrean, askok etxebizitzaren azpiko garajeetan aurkitu zuten irtenbidea. Autoen joan-etorririk ez zegoela baliatuz, eta alarma egoeran ezarritako baldintzak kontuan hartuta legezkoa ez izan arren, ordu batzuetako arnasa behintzat eskaini zuten normalean bestelako funtzioa izaten duten espazio horiek: lasterketak egiteko erabili ziren, futbol partiduak antolatzen... Alegia, garajeak, konfinamenduan, espazio komun gisa erabili dira Olaizolak azaldu duenez.



“Eta konturatzen zara hori guztia eraikinean dagoela eta igual beste zerbaiterako erabil daitekeela. Zeren bestela, inork ez du zalantzan jartzen etxe bat saltzen dizutenetan aparkalekua *pack* berean doala. Eta igual zuk hori ez duzu nahi. Hor has ten dira eztabaidak: zeren mode loak dena batera saltzen dizu. Ezin duzu erdizka egin”.

“

**BEGIRATZEN HASTEN  
ZARA ETA PLANO ASKO  
BERDIN-BERDINAK  
DIRA. EZ DIRUDITE  
ETXE BERA, NAHIZ ETA  
EZAUGARRI BERDINAK  
IZAN. ETA KONTURATZEN  
ZARA ZURE OSABA  
BAT EIBARREN ETA  
ZURE IZEBA BAT  
HONDARRIBIAN ETXE  
BERDINEAN BIZI DIRELA”**

**EKAIN OLAIZOLA LIZARRALDE**

Oinarri-oinarrizko problema bat bistaratzen du garajeetako espazioaren adibide horrek: etxe batean biziko den pertsonak ez duela ia ezer erabakitzen etxe hori eraikitzen ari direnean. Etxean bizi behar duen pertsonari giltza eskura eman arte, promotoreek eta lan-talde teknikoek hartzen dituzte erabaki garrantzitsuenak eta badi-rudi bukatutako produktuak merkaturatzea dela etxegintzaren-alorrean dagoen aukera bakarra. Horrek beste problema batzuk ere ekartzen ditu, adibidez, bizilagunak nor izango diren erabateko in-kognita izan daitekeela eta eraikin berean bizi diren pertsonen arteko

bizikidetzan lehenagotik elkar eza gutzen ez duten pertsonen artean eraiki behar dela, haietako inork diseinatu ez duen espazio baten tesuinguruan.

Bestelako ereduak proposatzen du *Komunitatean bizi* liburuak – ARGIAk eta KoopFabrikak laster argitaratuko dute Lacol eta La Ciutat Invisiblek elkarlanean idatzitako lan hau euskaraz-. Bartzelonako Sants auzoan dagoen La Borda etxebizitza-kooperatibaren esperientziatik abiatuz, gauzak beste modu batera egiteko zenbait oinarri jartzen dituzte mahai gainean, besteak beste etxeetan bizi behar duten pertsonen horien diseinuan hasieratik nola parte har dezaketen, elkarbizitza hasi aurretik ere komunitate-harremanak bultzatuz, talde-izaera indartuz eta elkarrekin gatazkak konponetzen ikasiz.

Zeren gaur egun nagusi den ereduak joera dauka bizilagunen arteko gatazkak gertatu aurretik neutralizatzeko, eraikin batean bizi behar diren pertsonen prezio oso garestia ordainaraziz: harremanak ia zerora murriztea. Beste prezio batzuk ere, ekonomikoak, energetikoak, ingurumenarekin lotutakoak, pagatzen ditugu gaur egun. Zer zentzu dauka, adibidez, pisu bakoitzak arropa garbigailu propioa edukitzeak, zeregin hori espazio komun batean eta makina gutxiago erabiliz antolatu beharrean? Zergatik lehenesten da gaur egungo etxebizitza-ereduan otordu guztiak nork bere etxean egitea, askotan bakardadean, eguneko momentu horietako batzuk jende gehiagorekin partekatu ordez? Mota horretako galderak sortzen zaizkio *Komunitatean bizi* irakurtzen duenari, etxebizitzaren alorrean martxan dauden alternatiben xehetasunak ezagutu ahala.

Bartzelonan ikasi zuten Olaiatzak eta Agirrek, erreferentetzat dute Kataluniako hiriburua eta ai-

tortzen dute agian gauza batzuetarako idealizatuta ere eduki dezaketela baina, nolahi ere, ezagutzen dituzte hango hainbat esperientzia, etxe bateko espazio komunak beste era batera antolatzen saiatu direnak besteak beste. “Egin dituzte saiakerak bakarrik gazteak jartzeko elkarrekin bizitzen. Espazio komun batzuk, problematika batzuk. Gauza bera baina bakarrik zaharrak elkartzen: beste espazio komun batzuk eta beste problematika batzuk. Zaharrak eta gazteak ere nahastu dituzte proiektu batzuetan, eta batzuek funtzionatu dute oso ongi, baina beste batzuek berriz, oso gaizki. Ez da batere erraza esatea zeintzuk diren motiboak”, esplikatu du Olaiatzak. “Promozio batzuetan oso ondo moldatu dira bizilagun zaharrak gazteekin, elkarri laguntzen asmatu dutelako; eta ez da bronkarik egon garbigailua jartzeko orduan edo espazioak konpartitzean. Baina beste batzuetan bai. Eta administrazioak zalantza baldin badauka, nahiago du zero bronka, ez bi bronka eta beste de-

nak ongi. Garrantzitsuena da gatazkarik ez sortzea. Ez dute kexarik nahi”.

Agirrereren ustez “oso berde” gauden oraindik gizarte bezala espazioak logika komunitarioago batekin funtzionarazteko: “Borondatea eta etika eta... diskurtso hori denok botatzen dugu, oso erraza da, baina gero barruan ditugu logika oso markatuak, oso indibidualak, mugak non jarri galdetzeraz eramatzen gaituztenak. Beste herrialde batzuetan indibidualismoa distantziarekin hartzen dute; hemen berriz, herri eta hirien populazio dentsitateagatik, dena dago estu-estu, eta muga horiek sortzen dira igogailu eta bi portalen arteko tarte horretan. Gatazkarako osagai onak dira”. Hala ere, Euskal Herrian une interesgarria bizitzen ari garela uste du, pixkanaka bestelako proiektuak hasi direlako agertzen, gizartearen behar berriei erantzuteko orain arte probatu gabeko formulak bilatzen dituztenak, nahiz eta oraindik dirua sartzen den momentua iristean asko bidean geratu.





## ZAHAR ETXETIK ZAHARREN ETXERA

Iruñean Juntura kooperatibarekin batera egindako Etxekonak proiektua jarri du horren adibide gisa Agirrek. Donibane auzoan adineko jendearentzat pentsatutako egitasmoa izan zen eta, besteak beste, bizilagunen arteko elkarguneak erraztea zen proiektuaren ideietako bat. Ez da kasualitatea bestelako planteamendu arkitektonikoek jende nagusiz osatutako kolektiboak aintzat hartzea, izan ere, *Covid Study Houses* proiektua sustatu duten bi arkitektoek azaldu dutenez, hementik aurrera etxegintzan izango den erronka handienetako bat adineko pertsonak izango dira. Haiek izan dira koronabirusaren krisiaren biktima nagusienetakoak<sup>2</sup>. Dela bere kabuz bizitzeko zailtasunak zeuzkan jendea etxean inkomunikatuta egon delako, dela zahar etxe askotako egoera tragikoengatik, gaia lehen lerrora etorri da, konpondu gabeko auzi asko daudela erakutsiz.

Olaizolak pausoz pauso deskribatu du goizago edo beranduago gehienok bizi beharko dugun prozesua: “Pertsona bat bizi da etxe batean eta momentu batetik aurrera ezin du berak bakarrik moldatu. Hortik oso deskribapen garbia egin dezakezu etxebizitza baten prozesuaren inguruan: egoera horretan egon eta etxeko erreforma guztiak eginda ere moldatzen ez zarenean, egoitza izaten da irtenbidea”. Erresidentzien artean denetarik egon daitekeela onartuta, arkitekto donostiarraren ustez bestelako ereduaren premia geroz eta gehiago ari da nabaritzen. “Uste dut jendea kontziente dela nola jubilatuta ondoren urte asko gelditzen diren oraindik; eta ari dela antolatzen edo behin-

tzat badagoela kezka: ‘Ni ez nago ezkondua eta bakarrik bizi naiz, eta iritsiko da momentu bat ezingo dudana bakarrik moldatu. Nola egin dezaket? Nor edukiko dut? Non aurrerki dezaket nire antzeko jendea?’”. Horregatik, azken hamarkadetan Babes Ofizialeko Etxebizitzekin egin diren promozio publikoen antzekoak aurreikusten ditu etorkizunean adineko jendez osatutako kolektiboentzat.



**GAUR EGUN NAGUSI  
DEN EREDUAN JENDEAK  
EZIN DU ELKARREKIN  
INTERAKZIORIK IZAN.  
ETXETIK IRTETEN ZARA,  
IGOGAILUAN SARTU,  
ZURE KOTXEA HARTU ETA  
BAZOAZ LANERA. EGITURA  
EGINA DAGO KOTXEA  
SAR DAITEZEN ETA ZU  
BALDINTZATZEN ZAITUZTE  
BESTE GUZTIRA”**


**EKAIN OLAIZOLA LIZARRALDE**

Egoera horren albo-efektu bat azpimarratu du Agirrek: “Ez dakit zenbat jende bizi den Donostiako zabalguneko etxe oso handietan bakar-bakarrik. 180 metro koadroko pisu batean bakarrik bizi den norbait beste leku batera bizitzera joaten bada, etxe horretatik bi pisu sor ditzakezu eta bakoitzean familia oso bat sartzen da. Etxebizitza politika gisa ere zentzua dauka”, adierazi du.

Hori bai, adineko jendearengan pentsatuz egindako etxeetan zaintzaren logika erdigunean jartzea ezinbestekoa dela uste du. Eta giltzarria den galdera egin du: “Nola bideratzen eta laguntzen da autonomia falta zaion pertsona baten zaintza?”. Puntu horretan gauza gehiegi nahasten direla uste du Agirrek: araudiak zer dioen, eraikinaren kokalekua zein izan behar den, nolako diseinua behar duen... eta noraino iristen den administrazio publikoaren ardura; nondik aurrera duen zeresana pertsona bakoitzaren inguru familiarrak ere.

Auzi oso konplexua da, izan ere, beste herrialde batzuekin konparatuz gero, Europa hegoaldeko herrialdeetan logika familiaristak pisu handia dauka oraindik. Sarritan senideek –nagusiki emakumeek– egiten dute beste estatu batzuetan administrazioak ordaintzen duen zaintza-lana. Nabardura bat egin du Agirrek horretan ordea: “Suediako eredia justu kontrakoa da, pertsonaren autonomia beti sustatu da eta estatuak dirua jarri du horretarako. Jendeak ez dauka familiarekiko hemen bezainbesteko dependentsiarik, baina horrek ere badu beste alde bat: *The Swedish Theory of Love* (Maitasunaren teoria suediarra) dokumentalean ikusten da jendea bakarrik hiltzen dela bere etxeetan eta ustelduta aurkitzen dutela handik denbora pila batera. Askotan logika familiaristari kritika egiten diogu, baina nik uste ez dela familiarista edo independentea kontua, baizik eta zaintza nahitaezkoa dela”. Eta familia desegiten ari denez, beste harreman mota batzuk eraiki beharko dira Agirreraren arabera zaintzari erantzuteko. Arkitekturak beste harreman mota horiek eraikitzen lagun dezake.

<sup>2</sup> Gaian sakondu nahi duenak irakur dezake ARGIAren 2.683 zenbakiko “Agintariak eta jendarteak bideratu adinkeria agerian da koronabirusaren krisian” erreportajea.



## ETXEBIZITZA ESKUBIDEAREN KONTZEPTUA ZABALTZEN

Munduak *reset* botoiari sakatu zion une bati buruz hitz egin dugu LARRUN honen hasieran, ez alferrik, izan ere 2020koa historiako liburuetan agertuko da munduak birus baten aurrean *stop* botoia zapaldu behar izan zuen urtea bezala. Geldialdiaren ondoren gauza asko ez dira lehengora itzuli eta horien artean, konfinamenduaren esperientziak gure etxeekin daukagun harremana ere goitik behera aldatu du. Eraginik izango al du horrek etxebizitza eskubidea ulertze-ko daukagun moduan? Orain arte, Euskal Herrian eskubide horretaz aritzean etxebizitzara sarbidea izan da gehien aipatu izan den gaia, gora eta gora joan diren prezioak medio, geroz eta zailagoa baita bizitzeko leku bat aurkitzea.

Baina sarbideetik harago, norberaren bizitokiaren kontzientzia sakonagoa hartzeak beste aldagai batzuk ere sartu beharko lituzke eztabaidan: hasteko, jabeagan oi-


“

**ERRAZA DA BEZEROAK SUKALDE ETA EGONGELAREN ARTEKO HORMA BOTATZEA, BAINA PIEZEN ARTEKO HARREMAN DESBERDINAK EGITEA EZ HAINBESTE. HORRETAN EZIN ZARA SARTU. PENA DA, ZEREN ETXEBIZITZA DESARROLLISMOAK ETA FRANKISMOAK HAINBESTE MARKATU GABE DAGOEN LEKUETAN ETXEA ERABILTZEKO MODUA OSO DESBERDINA DA”**

**JONANDER AGIRRE MIKELEZ**

narritutako eredia kolokan jarritz, haren iturburu ilunaz gain, etxebizitza bihurtu duelako etekina ateratzeko produktu bat. Erabilera lagapenaren eredia lehenetsi dute, adibidez, Bartzelonako La Bordan, *Komunitatean bizi* liburuak xehe-tasun handiz esplikatzeko duen moduan. Eta jabetzaren alternatibak bilatzearekin batera, logika indibidualistak zalantzan jartzea ere izan dute euren xedearen artean.

LARRUN honetan elkarrizketatu ditugun bi arkitektoek eman dituzte etxebizitza eskubidearen kontzeptua osatzen lagun dezaketen beste aldagai batzuk ere, hala nola, etxebizitza eredu patriarkalaren alternatibak bilatzeak eta espazio komunei garrantzia emateak bestelako harreman batzuk bultzatuz; eta horrek eragin positiboa izan dezakeela pertsonen zaintzan. Zahartutako gizarte batean, zeinean familia eredu tradizionala gainbehera datorren, aspektu horiek geroz eta pisu handiagoa izango dutela dirudi.



ANE eta IGOR  
BROCKLEY, LONDON





Hego Euskal Herrian etxebizitza eskubidearen inguruko debata txikia da, hala ere. Egoera ere desberdina da Kataluniarekin edo Espainiarekin alderatuz gero: “Madrilen eta Bartzelonan etxebizitza publikoko promozio asko ez dira saltzen, ez dago erosle nahikorik. Eta hemen, ateratzen den bakoitzera zozketa egiten da eta ezer hasi aurretik promotoreak dirua pol-

tsikoa dauka. Guk interpretatzen dugu hori gure etxebizitza babestuak oso onak izango balira bezala, baina segur aski gure merkatua astakeria bat da”, azaldu du Olaizolak. Agirrek beste bi aldagai ere gaineratu ditu: familiak etxebizitzaren auzian jokatzeko duen papera, bere ustez “oso errotuta” dagoena; eta lurralde faltak sortzen duen eskasia ere. “Dinamika askoren gurutzake-

ta” da, bere esanetan, gaur egungo egoera probokatu duena.

Edozein modutan, emaitza ezaguna da: Euskal Herrian ingurukoek baino askoz etxebizitza garestiagoak dauzkagu eta horren ardura ez da kanpo-eragileena bakarrik, ezta agian nagusiki ere: eskala txikiko espekulazioak, modu amateurrean egiten denak, pisu handia dauka hemengo merkatuko prezioetan, Europako beste herrialde askotan ez bezala –Berlingo alokairu parkearen zati garrantzitsu bat enpresa handien esku dago adibidez–. Etxea erosi ahal izan dutenek jabetza horri etekinak atera nahi izaten dizkiote, eta horrek egoera orokorra baldintzatzen du Euskal Herriko herri eta hiri askotan.

*Covid Study Houses* proiektuak gaur egungo egoeraren kontzientzia sortzea lortu du. Abiapuntu ona da beste ariketa bat planteatzeko ere: bakoitzak bere gaur egungo etxea marraztu ordez, bizitzeko nahiko lukeen etxebizitza marraztea. Zerbait diferentea imajina dezaketen pertsonak bakarrik bultzatzea dezaketelako bizi garen lekuek hain beharrezkoa duten eraldaketa. ●



2021a urteurren borobil ugarirekin dator: 500 urte Noingo batailak, 150 urte Parisko Komunak, 100 urte Sobietar Batasunak M8 emakumearen egun izendatu zuela, 25 urte Itoiz urtegitiko kableak moztu zitutela edo Hondarribiko alardean emakumeak lehen aldiz atera zirela, 20 urte Al Qaeda AEBetako Dorre Bikien aurkakoko atenuarekin mundua aho bete hortz utzi zuela.

Aurtengo formula baliatuz, **egunero efemeride bat** eskainiko dizugu datorren urtean ere, burujabeak garenez, historia guk ere idatz dezagun.

**AZOKA.ARGIA.EUS**

**943 37 15 45**



10€

+4€ BIDLKETA GASTUAK

**ARGIA EGUTEGIA**